


Asparrena

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak



ASPA RRE NA

Asparrenako ikuspegi panoramikoa. López de Guereñu. Photo-Araba



Asparrena

Aspárrenak iragan bizia gordetzen du burdinazko eskeletoetan. Mendiaren eta herriaren artean, erdi-eroritako toki bat dago, burdinazko habeekin ortzia urratzen duena. XIX. mendearen azkenaldia gogoratzen du; orduan Arabako lehen siderurgia-fabrikak ez zuen atsedetik hartzen, ez gauez ez egunez, eta gizonak ikatza erre eta erre aritzen ziren, hainbat sendiri, herriko zein kanpoko, jaten emaiten zion metala urtzeko.

Gaur egun ia galduta dagozen ikatz-biltegiak, eta ahotsik eta urratsik entzuten ez den jauregi batek iraganak orainari eustea eragiten du. Oraindik ere bada “ugazaba”-ri buruz hitz egiten duenik, egin ahal izan eta lortu zuen jaun haretaz; Araban gehienak nekazariak ziren garaian, Araian hainbeste ez ziren baina, harek industria berria eraiki zuen Udallerria osatzen duten herrietan industria beti egon da, bai Albeizko irin-lantegia bai ibaian Eginoraino ibili izaiten ziren eiherak edo errotak edo boluak. Gaur egun, Ametzagan industrialde zabal bat dago, egunoro hiriburura joan behar ez duten bizilagun askori lana emaiten diona.

Siderurgia orduan berri haretatik ehun urte baino gehiago irago ondorean, herriak oraindik dardar egiten du baina doinua oso bestelakoa da. XXI. mendeko gazteek musika entzuten dute beren beribiletan hoskorailuez, garai zaharretako lantegiko tximinia luzearen ondoan, errekaaren gainean zutik baitirau, orduan baino garbiago doan ibaiaren aldamenean.





Matilde Zubiaurreren argazkia, estudioan egina

Amamarengandik
bilobarengana
Lehen eta orain

Matilde
Zubiaurre-
rekin

Asparrena



Andere Pacaren ongieritzia

Matilde Zubiaurre' San Juan auzoan jaio zen gudua hasi baino lehentxeago. Orduan herria tikiagoa zen eta kaleak asfaltatu gabe zegoen. Sei neba-ahizpetarik lehena izan zen, baina horrek ez zuen eragotzi egunoro eskolara joaitea.

Eskola nazionala zeritzonaz gero, lekaime edo monjinen eskola izan zuen ikasten aurrera egiteko lekua. Herri guztietan ez zegoen halakorik, hots, halako aukera edo abagunerik, baina Ajuria sendiak, Araian garrantzidunak, serorak etorrarazi zituen, bertan irakats zezaten.

Eskoletxe erlijioso haretara sartzen zirenak, burdindegian lan egiten zuten langileen alabak ziren, batik bat, baina, gehienak, andere Paca Ajuriaren oneritzia lortzen zutenak ziren, beraren begikoak alegia. "Ez zuen umerik eta min zuen", oinarri-zko ikasketak egiteko eretia zuten, eta, gainera, josteko makina erabilteko aukera ere bai, eta takigrafia, mekanografia ikastea ere bazuten, are bai eta pintatzen ikastea ere.

Ajuria sendia. C. Yanguas, Gasteizko Udal Artxiboa ►





“

*Harreman onak
funtsezkoak ziren”*



“

*Ugazabaren
eliza, ugazabaren
zubia, ugazabaren
kantoia...”*

Logela bakoitzean kebidia

Matilde' Ajuria sendiak ia bizilagun guztiak bere langile zituen garai haretan bizi izan zen. Nekazari edo lurgin guti zeuden, aberastasuna ikatz egitean eta galdagintzan, hots, burdinaren lantzean zegoelako.

Gizasemerik gehienek han egiten zuten lan, eta emakumezko batzuek jauregian neskame, udan batez ere hantxe hazten ziren, hangoxe gela eta lorategietan, orduan bititza eta hara-honak hantxe. Matildek jauregi zaharra ezagutu zuen, gazte zelarik, eta hango edertasunak gogoan ditu: gelak eta etzauntzak, portzelanazko garbi-ontziak, bakoitza bere irudi grabatuarekin, eta etzanguetan kebidia bana. Jatokia, osoki zur landuz estalia, eraikinaren beheko aldean edo etxabea, eta hormetako batean ikuz-konketa edo garbi-aska, jatera joaiten ziren lagunek euren eskuak-eta ikuz ahal zituzten.

“Tamalgarria da itxita egoitea”.

Bertako bizilagunen egunoroko bizitzan oso ohikoak ziren arren, Ajuria askazia ez zen herriko jendearekin harremanetan jarten, ez zuten jaietan esku hartzen eta guti ibiltzen ziren. Apaizak, medikuak eta irakasleak zuten soilki harremanik haiekin.

Elizan euren leku berena zedukaten, alfonbra edo zerria zoruan, tertzipelozko belaun-jarlekuak eta sareta-aulkiak eta guzti. Han ez zen inor jarten, Ajuriatarrak izan ezik, eta urteko aldi luze batzuetan, neguan behinik behin, herritik urrun haiek, hura guztia eliztarren begitik estaltzen zen, kentzen zen. Elizara joaiten ziren beste lagunek ere nork bere belaun-jarlekua zedukaten, bakoitza sendiaren hizkiekin markatua, baina bazegoen jarlekurik ez zedukanik eta nesketan gazteenak maiz zaharrei edo behar zutenei euren lekua utzi eta zoru-zoruan belaunikatzen ziren, eta, jakina, galtzerdi meheak urratzen ziren.

Aisialdian, Aratz mendira


Erljioak dena begirapetzen zuen garai haretan, herriko neskek beren guneak bilatu behar zituzten. Mendia zen gehien laguntzen zutenetako bat. Hori bai, kirol-zapatilarik ezean, oski edo zapatattoekin igaiten ziren, irrist edo laprast egin arren.

Gero, plazan dantza egitera jaisten ziren, dantzaldira, baina ez zieten elkarrri helduta dantzatzen uzten, ez eta bi adiskideren artean ere. Jotak baino ez. Hori zen igandeetako entretenimendua, harik eta apaizak zinema eskaini zuen arte kateke-sia egiteko tokian, eta neskak alde batean eta mutilak bestean eser zitezen erabaki zuen, banandurik hain zuzen.

Senargaiarekin hasi baikoz, oste-ratto bat, txintxo-txintxo biak eta ororen ikusterrean, inoren ohorea eta duintasuna zalantzan jar ez zedingatik. “Lekaimiek Josetxo baimenarekin herriratzten zela jakiten zutenean, sor Sofiak zigortzen ninduen, ezer ez egitera zigortu ere, hala egia, harekin topo egin ez nezantzat, elkar ez ikustearren. Bizpahiru aldiz jasan nuen”.

Matilde adiskideekin mendian ►





“

*Joan baino lehenago,
hori bai: meza,
errosarioa eta jaun-
hartzea”*



“

*Nola aldatu diren
gauzak”*

La cope

1886. urtearen bukaeran, La Unión Obrera kooperatiba sortu zen Araian, eta Ajuria lantegiko langileek eta langile-buruek sortu zuten premiazko gauzen hornitzeko. Asmoa Alfredo Ajuriak mahaitaratu zuen, eta guztiontzat erakar-garri izan zen, eta horretarako bere jabetzako bi etxe utzi zituen, ‘biltegia’ izenez ezagutu zirenak.

Ekonomiak oso txiroak ziren garaietan, eta egunoro ordaintzeko dirurik ez zegoenean, mandatuak aurrerratu eta ozenki ohar-temaiten ziren. Idazkari bat arduratzen zen oihuz aldarrikatzen zen hura guztia idazteaz, eta ilaren bukaeran, langileek lansaria jasoten zutenean, nork bere behin-behineko zorra ordaintzen zuen.

Patapalo haren goxo-goxoa!

1977an Araian izozki-lantegi bat jarri zen, Miko izenekoa. Erronka arriskutsua izan zitekeena, irudi zuenez, arrakastatu bilakatu zen, herrialde osoan salgai. Nolabait esatearren, burdina Mikopete eta Mikobruja gozokien zapore goxoak ordezkatu zuen, eta Asparrenak bere industriarekin aurrera jo zuen, beste arlo edo bide batzuetatik.

Langile-kopurua urterik urte handituz joan zen, metal-lantegien itxiera aurrikusita. Miko iritsi aitzin, askottok Araia utz eta hiriburura joan behar ukan zuen, baina izozki-lantegiarekin herrira berriz ere eztanda ekonomikoa heldu zen. Jende gaztea, batik bat, kontratatzen zen, emakumezkoak batez ere; kanpainako fijoak esaten zieten, urtaro bateko hitzarmendunak alegia, eta honek etxerik askotara, maiz, bina lansari ekarten zuen. 80. hamarraldian, erdialdean, Araiak bizi-maila goi-goikoa zuen.



Betiko giro ona

Amaiak, Matilderen bilobak aitor du: ez du uste amamak antzegintzan duen dohaina berak duenik, amama olioiz margotzen hasita zeta gainean margotzera heldu baitzen. Berak pianoa bertan behera utzi du, futbolean atezain jokatzearren eta mendian lasterka egitearren orobat. Herrian aukera izan du, bere kirolzaletasun handiarekin hainbat kirol-taldetan esku hartzeko eretia izan du.

Amama-biloba antz handikoak diren ber ezberdinak dira, eta bieie ala bieie Araiak behar dutena eskaintzen die. Amama emakumezkoen elkarteetan esku hartutakoa da, eta egin izan diren kultura-egitaldietan halaber. Amaia, berriz, lanera Gasteizera joan ohi da eta lanaz gero etxera pozik itzultzen da, langunak hemen baitaduzka. Guztientzako giro ona dago.

Araiak beti elkarren arteko egitasmoetan bereziki dardar egin izan du. Nekazari eta lurginen eskualde baten barruan bere izaera industrialari eutsi dio, eta hor du bere izaera bere-berea, modernoa eta ekintzalea. Estatuko kontsumo-kooperatibarik zaharrena hemengoa da, 1873az geroko musika-banda bat du, eta duela hogeita hamar urte baino gehiagotan Umore Antzerkiaren Jaialdia ospatzen da bertan.

Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentro bat sortu du eta Europako ingurumen-proiektuetan esku hartzen du. Asparrenan giza- eta kultura-mungimendua oso elkarkoia eta eraginkorra da.

Matilde, gaur egun ►



“

*Kulturaz jakin-
mina sortu
zitzaidan”*





1 Ajuria-ren lantegia

2 Kooperatiba

3 Marútegiko gaztelua

4 Zirauntza ibaiaren iturburua

5 Aizkorri-Aratzeko Izadi Parkea



Asparrena

EZIN
BESTE
KOAK

6 Ikazkinak

7 Euskara

8 Umore Antzerkiaren Jaialdia

9 Ardiak eta gaztak

10 Alipendi eta ekin!



1

Ajuriaren lantegia

Burdin-industriaren hondakinak Asparrrenako kale eta mendietan sakabanatuta dagoz. Non-nahi daude.


Zirrargarriena 1848an sortutako Siderurgia de San Pedro de Araya izandakotik geratzen dena da. Hainbat izen eta epealdi izan zituen, baina hemen “ugazabaren fabrika” esaten zioten –Ajuria sendia izan zen jabea– eta betirako aldatu zuen herriaren bizitza Arabako lehen siderurgia-lantegia eta Euskal Herriko bigarrena izan zen, eta, gainera, altzairua egiteko penintsulako lehen indukzio-labe elektrikoa ere eduki zuen.

Gaur egun, tximinia eta pabiloien egitura agertzen zaizkigu, sasi artean.

Enpresa-abentura handi horrek, garai nahasiak irago zituen arren eta lehiakide indartsuak izanagatik ere, hala nola Bilboko Labe Garaiak, mende eta erdi iraun zuen.

XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen lehen bi hamarraldiak izan ziren lantegiarentzat eta Araiarentzat opor-tasunik handieneko urteak. Ia herritar guztiek egiten zuten bertan lan.







2

Kooperatiba

Araiaiko 'La Unión Obrera'-k herrian eragin handi-handia ukan zuen. Alfredo Ajuria buru zela, kontsumo-kooperatiba sortu zen, ekonomato-denda izaiteaz gain bazkideei sendagile-arreta doakoa eskaitzen ziena. Ordurako asmo edo xede oso berria zen, eta emaztekiek eginkizun txit ekinkorra ukan zuten.

'La Cope'-ren helburua bazkideen interesei edo zuduei zuzendua zegoen, premiazkoa zuten guztiaz hornitzeko, salneurri ahalik merkeanean. Hori bai: langile edo beharginak irabazten zuena baino gehiago ezin eros zezakeen.

'El Amacen', biltegia alegia, esaten zioten tokia, 1904ean Zuzendari Batzak erosi zuen, eraikin berria bertan egitearren. XXI. mendean 'La Cope' oraindik ibili dabil, eta ez dago herritarrik bertan eskurik ez duenik. Urteak joan-etorri dira, gertaerak ere bai, 1968an gertatu zen sute larria adibidez, eta hala ere orduko elkartasun-giro eta borroka-gogo hura hemen da, zutik dirau. Gaur den egunean, supermerkatu batek ditu Araia eta inguruko herriak hornitzen eta zuzkitzen.



3

Marútegiko gastelua

Urrundik ikusten da, han harkaitz eskerga baten gainean, aurriak baino ez bada ere: Marútegiko gastelua da.

Igoera ibilaldiño llabur bezain pollita da, patarra goiti. Armokak 870 metro du itsas-mailatik. Ikuspegiak bidearen nekea arintzen du; Erdi Aroko bizitza nolakoa zen ulertzearren gogoeta eragiten du, orduko babes-lekuen garrantzia, Araia aldeko

guneetan batez ere, zeren, garai batean Gaztelaren eta Nafarroaren mugan borroka-toki gotorra baitzen, beti ere itsasorako bidean eta Europa alderako errepidean egoitearen ondorio. Gainaldean, haitz baten barrenean, babes-egitura izan ziren batzuk dagoz oraindik, eta nabarmen omenaldi-dorrea zeritzona. Duela ez aspaldi egindako azterketa batzuen hariaz, XIII. mendearen hasieran eraiki zela esan daiteke.



4

Zirauntza ibaiaren iturburua

Ur-jauziak eta osinak, pago-haritz basoaren barruan, Asparrenako lekuetan politenetakoa eta ikusienetakoa; anbiola ola bat ei zegoen.

Ibilaldiak 3,8 km. du eta Mitxarroaren Museoa hasten da, ibaiaren ondo-ondotik, antzinan errotak edo boluak izan ziren erai-kin batzuen aurriak ikusgai.

Uraren marmarra entzuten da, firi-firi, urtegi batetik behera lasterka doala, ubidez. XIX. mendeko gauzak dira, eta Araian industriak beti ukan duen garrantziaren berri zaharra emaiten digute, ingurumena egokia izanki.



Ibaia bizi iturri, eta hemen lan iturri ere bai. Argindarra ekoizteko zentrala, ekoiztokia alegia, hasieran lantegia ibilaraztekoa zena, herriko argietarako ere erabili izan zen, eta beste leku gutitan bezalako argia zegoen herria zen. Urteetan geldirik egon eta gero, herriak argindar-ekoizpena berreskuratu zuen, eta gaur egun herriko enpresa batek argia ekoizten du.





5

Aizkorri-Aratz Izadi Parkea

Araba aldean, Euskadiko hiru lurraldetako mendilerrorik garaiena, paisaia aldetik ere, pago eta harkaitz eta larre, zinez ikusgarria, liluragarria, begia betekoa da. Ibilbideak ugari, bide-zidorrak non-nahi, eta indak beredin; bat ere bereziki garrantzi handikoa gure historian Lizarrate izenekoa, San Adriango lurruspea esaten diotena, Erdi Aroan benetako galtzada edo harbide oso ibilia izan zena, zeren, Jaun Done Jakue bidea eta Erret-bidea, hots, errepedea bertatik iragaiten baitziren; Unescok Giza- Ondare izendatu zuen.

Inaziotar Bidearen hirugarren bide-zatia, ederrenetako bat, Araian bukatzen da. 18 km. gogor xamarrak eta ondo zuinez markatuak dira, Arantzazuko santutegirean Araiaraino, Euskadiko leku enblematiko batzuetan gaindi. 1522an, Iñigo Loiolakok, euskal santurik munduan ezagunenak bere etxerean Manresaraino egin zuen bidea da aipatzen dugun hau. Irten, Arantzazuko santutegia dagoen leku malkartsu ederrerean irteten du, eta zeharka-meharka Urbiara igaiten da. Araia aldean, azken kilometroetan asfaltozko errepidetik ibili behar da baina, eliza-udaletxe ondoan dagoen tabernak izango ditugu atseden-leku.

Udal aterpetxe txukuna dago, 2022an ireki zena, 16 tokirekin.



6

Ikazkinak

Asparrenak Gipuzkoa eta Arabako Partzue-
go Nagusian esku hartzen du, Aizkorri-Aratz
Izadi Parkearen barruan dago eta. Berezia
eta bitxia da, duela 600 urte baino gehiago
duen herri-itun horretan inguruko herri
batzuek usak edo herri-lurrak ustiatzeko
eskubide baitute, eta ez elizak ez erregeak
zuten hor eskurik, ezertarako ez, zergak
jasotzeko ere ez. Oraindik bizirik dirauen
legea da.

Larre eta baso ugari hor eta, beraz, abereak
bezala ikazkinak ere ugari, garai zaharretan
behinik behin. Olak ibiliko baziren, ikatza
behar, eta egur-ikatza egiteko zuhaitzak,

pago zein haritz batez ere, ebaki behar
ziren, argindarra ekarri aurretiko aldia
zen, jakina. Zuhaitza ebakitzeko aizkora eta
arpana erabili ohi ziren, eta, beraz, hortik
aizkolarien arteko lehiak. Antzina haretako
batean nafar eta arabar aizkolarien arteko
apostua sortu omen zen, eta jendearen
aurrean Araian egin zutela diote.

Gaur egun, anbiolako langintza haren
omenez, ikazkinak gogoratzearren, Araian
txondor bar eraikita dago, egon, zertan ho-
netako, eskualdeko azken ikazkin haietariko
batek, Juan Ezkurak, beste batzuekin, eraiki
zuen.



Andoni Urrestarazuren argazkia. Margolaria, J. M. Marcote

7 Euskara

Euskara noizbait galdu zen arren, Asparrenan berriz ere berreskuratuz etorri da, itzuli da. Ikazkinek ez zuten erdararik egiten, txintik ez, eta haiekin hitz egite aldera euskaraz jakin behar zen.

Askok hala ikasi omen zuen. Mende edo gizaldi baten ondorean, herriko gazterik gehienek euskara dakite, eta euskaraz egin ere egiten dute, lanean, eskolan, bizitzan, egunoroko zer guztietan.

Eskualdeak ez du ahanzteko bere herriko Seme Kutun izan zen Andoni Urréstarazù; Araian 1902an jaioa, euskara Madrilen ikasi zuen, ikasketak egin bitartean. 36an eusko gudari izan zen eta 1940ra arte Santoñan (Kantabria) gatibu hartu zuten. Gero, irakas-kuntzan hasi zen eta euskara zabaltzeko lanetan buru-belarri ekinez aritu izan zen.

1955ean lehenengo Gramática Vasca egin zuen, arrakasta handikoa, 1959an Editorial Auñamendik berreditatu zuena. Erbestean luzaro egon ondorean, beti euskara ardatz idaz-lanetan jandunik, Gasteizera itzuli zen, 1979an, Franco diktadorea hilaz gero.

XXVI FESTIVAL DE TEATRO D
DE ARAIA-ASPARREN

XXV



▶ S
V
ARAIA: B
VITORIA
AGURAIN
INFO. TE

WWW

8

Umore Antzerkiaren Jaialdia

Agorrileko bost egunean, Araiako karrikak umorez janzten dira. Hitzordua 15. egunaren inguruan izan ohi da, Umore Antzerkiaren Jaialdia ospatzen denean. Egun berezi horietan, Araba-Euskadiko eta gure mugaz haraindiko antzezleek barreak eta algarak, umorearekin aldar-te ona eragin eta eragin nahian dabilta bertan bizi zein arrotz diren herritarren artean.

Dena orain dela 30 urte baino haboro hasi zen, herabe antxean, eta haziz-haziz joan zen, lurralde osoan erreferente bilakatu arte. 2003az geroztik, zabalduz handitu da eta, Araian bakarrik ez ezik, Jaialdia Arabako beste herri batzuetara ere hedatu da, adarrik adar.

2023an, kalean bezala antzoki itxian ere, guztira 41 antzerki-lan eskaini izan ziren, 13 antzelari-taldek jokaturik, Araba osoko hainbat herritan. Araian tabernak ere egun horietarako bereziki janzten dira, aulkiak eta beste ipin-kentzeko laguntzaileak, nahitari, biltzen dira, eta herri guztiak bere Umore Antzerkiaren Jaialdi horren alde jo eta ke jarduten du.

ARREREN ALDEZ AURRETIK SALMENTA
ENTA ANTICIPADA DE ENTRADAS

ANTZOKIA

GASTEIZ: CASA DEL LIBRO. CALLE ARCA KALEA, 11.

I / SALVATIERRA: OFICINA DE TURISMO BULEGOA.

L.: 688 812 803

W.JARAIALDIA.COM



9

Ardiak eta gaztak

Altzania mendilerroan ibiliz gero artaldeak larre zabaletan alhan ikustea ohiko da, goialdeetan batik bat, latxa motako ardiak gehienak. Asparrenan artzaintza betidanikoa da, eta egun gazta eskuz egiten duten ardidunak badira, gaztandegi batzuk eta latxaren esnez egin gaztak bikainak. ‘Queso de Pastor-Artzai Gazta jatorri-izendapenekoa Idiazabal Baserrikoa’, esne gordinez egin ohi da –pasteu-

rizatu bagekoa– eta gatzagi naturalaz mamitua.

Ilárduia herrian ‘La Leze’ dago, Eli Gorrótxategiren gaztandegia, Araian Aixtra basetxea, Saenz de Zuázola sendiarena, eta Unai Lekúonarena ere bai. Arríola herririk Julen Karásatorrek bere gaztak eskutik eskura saltzen ditu. Eginon, Sat Olano gaztandegiak Gaztaren Museo tiki bat daduka, eta bertan antzinako artzainen tresnak, lanabesak, bizierak eta abar erakusgai.

Aipatu horiek guztiak hainbat lehiaketatan garaitzaile gertatu izan dira, bai Euskal Herrian bai estatuan eta bai nazioarteetan.

Alipendi eta ekin!

Futbol talde bitxi eta bakan hau Araban zaharrenetako bat da, 1926an sortu baitzen!; Asparrena osoko eta Araiaiko, bereziki, lagunek osatu ukan dute urterik urte hainbat belaunaldiz belaunaldi. Alipendi hitzak ‘barbailasko’, ‘ipurloka’ esan nahi omen du, eta taldearen joan-etorriak halako zerbait erakusten du.

Alipendin jokatzek, orain ehun urte, bazuen bere zera. Lehenbiziko futbol-zelaia, Ametzaga mendian, eta bertan taldeak bere lehen ostikadak eman zituen. Zelaiak orduan lupetzak ziren, ez dutzarik ez aldagaririk, eta jokalariaik ibaian bainatzen ziren, urtaro guztietan. Jende kartsua talde honetakoa,

beti: behin 35 kilometro txirrinduz egin zuten, Araiatik Gasteizera, lehenengo tixertak edo ‘atorraxkak’ eta prakak erosteko, “hamar ogerleko” guztira.

Lehenbiziko jokaldia, ‘partida’ hala egia, Dulantziko taldearen aurka, 8-0, hots, zortzi eta huts galdu zuen. Bere une bikain-bikaina, askoz geroago heldu zen, 1968-69.eko lehia-arogan, Enpresen arteko Lehiaketako Kopan txapeldunorde izan baitzen. Orain, Alipendik Arabako Oho-rezko Mailan jokatzen du.

Araia bizia da, alderen alde. Kirol ugari agendan; eta edozein elkarte osatzeko hainbat partaide, zahar-gazte, eta gogo handiko jendea da bertakoa. Eta guztiak batzen dituen zerbait bada, zinema da. Andra Mari Aretoan, 75 urteotan, aste-bururo, filmek emaiten dira, eta beste egitaldi batzuk ere maiz, hala hitzaldi nola kantaldi, eta abar.



Asparrena zenbakietan

Herriak

Albeiz · Améztaga · Andóin
Araia · Arriola · Egino · Gordóa
Ibárgurèn · Ilárduià · Urabain

Beste datu batzuk

1.632 bizilagun - 2024
2.140 bizilagun (1899)
4.547 ardi
239.000 etxeko hegazti
9 taberna-jatetxe
2 aloka-toki

Asparrena

◀ ● ● 37 Km

● ▶ Gasteizera

◀ ● ● 95 Km

● ▶ Bilbora

◀ ● ● 81 Km

● ▶ Donostiara

◀ ● ● 65,5 Km

● ▶ Iruñera



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Asparrena Udala
Ayuntamiento de Asparrena



Gehiago jakitearren gure web-gunean



arabakoherriak.com